

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sustapen Departamentuak N-121-A, Iruñeko Ingurabidea eta Ebroko Autobia birgaitzeko kontratuak lizitatu ditu

Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 24an amaituko da hiru kasuetan, eta hiru kontratuen aurrekontua milioi bat eurotik gorakoa da

Viernes, 17 de julio de 2015

Herri Lanetako
Zuzendaritza Nagusiak
lizitaziora atera ditu ondorengo
kontratuak:

"[N-121-A errepideko bide-zorua \(Iruña-Behobia\) birgaitzea, 39 eta 52 kilometro-puntuen arteko zatia](#)", 368.039,21 euroan, BEZa kanpo; "[PA-30 errepideko bide-zorua, Iruñeko Ingurabidea, kontserbatu eta birgaitzea, 0,500 eta 22,800 kilometro-puntuetan](#)", 369.239, 60 euroan, eta "[A-68 Autobiaren, Ebroko Autobia, 2015, bide-zorua kontserbatu eta birgaitzea](#)", 367.126,72 euroan.



Lizitatutako lanek milioi bat eurotik gorako aurrekontua izango dute.

Hiru kontratuak prozedura irekiaren bidez izapidetuko dira, prezio txikieneko esleipen-irizpidearekin, eta eskaerak aurkezteko epea uztailaren 24an amaituko da hiru kasuetan, 30 eguneko egikaritze-epea izanik.

N-121-A errepidearen kasuan, proiektuak Zozai (Baztan) eta Sunbillaren arteko bide-zorua birgaitzea jasotzen du; izan ere, errepideak zati batzuetan bide-zoru agortua du, gurpil-arrasto eta pitzadura askorekin; egoera horrek bereziki degradatutako guneak saneatzeko jardura bat egitea eskatzen du bide-segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko.

Iruñeko Ingurabidean proiektuak bide-zorua birgaitzea jasotzen du 0,500 eta 22,800 kilometro-puntuen artean.

Azkenik, A-68 Autobiari dagokionez, proiektuaren barnean 93,180tik 87,160rako eta 100,400etik 98.640 kilometro-puntuen arteko zatiei ekingo zaie, biak ala biak Logroñoko noranzkorako galtzadan; geruzen arteko itsaspen-arriskuak ere jaso dira, kaltetutako seinale horizontalak berriz jartzea eta dagokion segurtasun eta osasuneko partida.